



2025EKO OTSAILAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko otsailaren hogeita zazpian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2024ko abenduaren 19an eta 2025eko urtarrilaren 30ean egindako ohiko bilkuretako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Ordenantza fiskaletan, ondorengo aldaketak egitea proposatu du Ogasun batzordeak:

Hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuen tasak:

- Industrietako hondakinak.

1) Ondorengo tasa hau modifikatzea:

- Errefusa edukiontzirik ez duten industriak 146,18 €/lauhilean

Aldatu ostean, honela geldituko litzateke:

- Errefusa edukiontzirik ez duten enpresak, baina Sasieta Mankomunitatetik beste bilketa-zerbitzu batzuk jasotzen dituztenak. 271,67 €/lauhilean

2) Bestalde, ondorengo tasa hau gehitzea ere proposatzen du:

- Jarduerarik ez duten industriaguneko gainerako lokal eta pabilioiak. 135,84 €/lauhilean

Ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

1. Aurkeztu den proposamenean eta bere espedienteetan jasotzen den dokumentazioaren araberako ordenantza fiskalen aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar egun balioduneko denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onarpena behin betikotzat joko da berariazko beste akordiorik hartu gabe.

IV.- HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN MUGIMENT KIROL TXARTELA EZARTZEKO.-

Kirol batzordeak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin hitzarmena sinatzea proposatu du Mugiment Kirol Txartela Lazkaon ezartzeko.

Txartel hau txartel birtual bat da, eta udalerri bateko udal-kirol zerbitzuko abonatuak aukera ematen die atxikitako kirol-instalazioetara EAE osoan sartzeko.

Honen azalpen xehetu bat egin du Goikoetxea zinegotziak (EAJ-PNV), Kirol batzordeburua izanik.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du irakurri dutela bidalitako dokumentazioan gutxi gora behera konpentsazio sistemak nola funtzionatu duten eta galdetu du ea kalkulurik egin ote den saldo positiboa edo negatiboa izango den Lazkaon erabiltzaileen aldetik. Alkateak erantzun dio ez dela posible kalkulu hori egitea.

Honen abantaila malgua dela dio Alkateak, Udalak berak erabakitzen duela zein zerbitzu partekatzen dituen eta zein ordutegitan. Horregatik dela garrantzitsua aplikazio hori, erabili nahi den zerbitzu hori eta joan nahi duzun toki hartan ikusi ahal izateko ea atxikituta dagoen Mugiment Txartel honetara. Ez luke kosturik izango Udalarentzat, ez aldeko eta ez kontrakorik. Edozein momentutan Udalak ekimen honetatik kanpo gelditzeko aukera daukala.



Hau horrela izanik, aho batez, Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Lazkaoko Udalaren artean Mugiment Kirol Txartela ezartzeko hitzarmena sinatzea onartu du.

V.- BERME ITZULKETA (ATHLON KUDEAKETA, S.L., KIROL ZERBITZUAK 2020).-

2020ko urriaren 1ean, Osoko Bilkurak Lazkaoko kirol zerbitzueren kontratua ATHLON SINTAGMIA, S.L. enpresari esleitu zion, eta beronek 30.800,34 €-ko kauzio aseguruaren ziurtagiria aurkeztu zuen Udalean, zerbitzua zuzen eta behar bezala burutzeko berme gisa.

Ondoren, enpresari izena aldatu zioten ATHLON KUDEAKETA, S.L. gisa izendatuz 2024ko abuztuaren 12ko eskritura publiko bidez.

Kontratua eta, beraz, berme-epea amaiturik, ATHLON KUDEAKETA, S.L.-ek 2025eko urtarrilaren 24an Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoan sarrera eman dion idatzian berme hori deuseztatzeko eskaera egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio honekin ados daudela, baina nahiz eta hitzarmenez jarrita dagoen Udalarekin ahoz eta idatziz izango dituzten harremanak euskaraz izango direla, idatzi hau gaztelania hutsean dago. Ohar bat egitea ondo hartuko luketeela. Alkateak baiezkoa dio, erreklamatu beharko zaiela.

Udal teknikariak burutu duen txostena ikusirik eta Kirol batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkura honek aho batez 30.800,34 €-ko behin-betiko bermea deuseztatzea erabaki du.

VI.- 2025EKO MARTXOAREN 8RAKO EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENAK.-

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) ondorengo adierazpena irakurri du:

"Beijingo Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren 30. urteurrena; hiru hamarkada berdintasunaren bidean"

Gaur, 2025eko martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma adopzioaren 30. urteurreneko ospakizunarekin bat egin nahi dugu. 1995ean Beijingen egin zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzian adostutako akordioek genero berdintasuna, emakume eta neska guztien ahalduntzea eta giza eskubideak gauzatzeko munduko ibilbide-orria abian jarri zuten.

Ibiltako azken 3 hamarkadetan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina bilakaera desorekatua izan da eta oraindik munduko herrialde bakar batek ere ez du lortu emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasuna. Hala eta guztiz ere, berdintasun-indizeek aurrerapena nabarmena izan dela erakusten dute, berdintasun-politiken araudi- eta erakunde-garapena eta mugimendu feministaren bultzada iraunkorra bateratu diren testuinguruetan.

30. urteurren horrek konpromisoak eta borondateak berritzeko aukera ematen digu, Beijingen adostutako berdintasunaren helburuak lortzeko, beharrezkoak diren baliabideak bideratuz, erronkei eta oraindik irautzen oztopoei aurre egiteko.

Euskal erakundeek eta, bereziki, tokiko gobernuek, 30 urte hauetan metatutako ebidentzia dute, eta horrek agenda feminista globalean oinarritutako berdintasun-politiken bermatu eta legitimatu egin du.

Euskal udalek genero-berdintasunaren lorpena bizkortzeko mundu-mugimenduarekin bat egin dute, emakumeen eta nesken ahalduzaren eta emakumeen eskubideen defentsaren aldeko apustua eginez. Tokiko eremutik arlo kritiko globaletan aurrera egiten laguntzeko, Lazkaoko Udalak ondorengo konpromisoak hartuko ditu:

- Emakumeen elkartegintza eta elkarte feministak sustatzea, horien bidez, berdintasun politika publikoetan, emakumeak solaskideak izan daitezen eta eragin dezaten.
- Tokiko gobernuetan emakumeek eta gizonak berdintasunez parte hartzeko eta eragiteko errazten dituzten baldintzak sortzeko akordioak hartzea.
- Tokiko arreta- eta koordinazio-protokoloak eguneratzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta biziraulcak onbidatzeko.
- Herritarren artean, indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea, gizonak eta mutikoak bereziki mugiaraziz.

Bukatzeko, Lazkaoko herritarrei dei egiten diegu Martxoaren 8aren bueltan antolatu diren ekintza eta aldarrikapenetan parte hartzera."

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dioa abstenitu egingo direla. Lehenik, martxoaren 8 zela eta, iazko otsaileko Osokoan egin zituztela galdera batzuk eta idatziz jasotakoan erantzungo zituztela esan zuela EAJk baina oraindik ez dutela jaso galdera horien erantzunik. Aurtengoan ere ez diela konfidantza haundirik ematen horrelako adierazpen bat onartzeak.

Bigarrenez, Eudelek emandako gomendioak ez dituela betetzen beren ustez adierazpen honek. Eudelenak gomendio zehatz batzuez gain, (hoien artean batzuk aukeratu zituztela eta alde horretatik bai) baina gero horiek egikaritzeko beste gomendio batzuk ematen dituela eta horrelakorik ez zituztela hartzen.

Hirugarrena, momentu honetan garrantzizkoena edo presa handiena zuen gaia hain zuzen ere, Eudelen adierazpenetan lehen puntu gisa sartu dutena zen, eta hori ez dutela beren adierazpenean onartu. Honakoa diola puntu horrek: "Sustapen egiturak baliabide eta langile nahikoz hornitzea, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko politikak garatzeko berdintasunerako politika publikoen kalitate estandarren arabera."

Alkateak dio adierazpen honek bere osotasunean betetzen duela Eudelek emandako gomendioa.



Ormazabalek dio adierazpenarekin batera dauden gomendioetan hitzez hitz diola: "Adierazpenetatik jarduketara. Aitortutako konpromisoen jardueren eta emaitzen adierazleen plan bat aurreikustea arrazoizko epe batean konpromisoen lorpen eta aurrerapen mailari buruzko kontuak eman ahal izateko." Plan hori non dagoen galdetzen du. Beraiek ez dutela plan hori ikusi.

Alkateak berriz dio adierazpen honek bete-betean betetzen duela Eudelen adierazpenak esandakoa.

Ormazabalek dio proposatzen dutela Berdintasun Plan hori idaztea. Alkateak eta Naldaiz zinegotziak diote dagoeneko lanean ari direla Berdintasun Planarekin.

Azurmendi zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea nor ari den plan hori idazten. Alkateak erantzun dio Udal Gobernua dela hori idazten ari dena. Ondoren batzordera eraman-go dela eta han eztabaidatuko dela honen inguruan.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EH Bildu), aurkako 2 botorekin (EH Bildu) eta 4 abstentziorekin (EH Bildu), adierazpena onartu du.

VII.- 2025EKO MARTXOAREN 8RAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) ondorengo testua irakurri du:

"Urtero bezala, Martxoaren 8a dela eta, EUDELen onartu du udal guztietan eztabaidatu eta egiteko adierazpen-eredu bat. Hari jarraituz, berak proposatzen duen gisan, herriko egoera zehatzera egokitu nahi dugu testu-eredua.

Lehen proposamen-ereduari deritzogu garrantzitsuena eta hori azpimarratu nahi dugu. Honela dio:

"Sustapen-egiturak baliabide eta langile nahikoz hornitzea, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko politikak garatzeko, Berdintasunerako Politika Publikoen Kalitate Estandarren arabera."

Guk honela jasotzea proposatzen dugu:

"Sustapen-egituran ezinbesteko harroina den Berdintasun batzordea teknikari kualifikatutak batek gidatzea proposatzen dugu, 2024 arte egin duen bezala. Horretarako, 2024an aurreikusitako berdintasun-aholkularitzaren zerbitzua laukoiztuko udalak, 20.000 eurotik 80.000 eurora eta dagokion deialdi publikoa egingo du."

Berdintasun-batzordearen lehentasunak, gure herriko egoera ezagututa, hauek dira:

1. Berdintasun-plana idaztea. Han jasoko dira planaren misioaz gain helburu estrategikoak, zehatzak eta horiek lortzeko ekintzak. Halaber, ekintza horien arduradunak zein izango diren ere zehaztuko da, eta noizko burutuko diren ere bai.

2. Udaletik dirulaguntza jasotzen duten elkarteek berdintasun-gaian zer urrats egin ditzaketan proposatuko da. Epeak zehaztuko dira urrats horiek osatzeko.

3. Herritarren artean, indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea, gizonak eta mutikoak bereziki mugiaraziz.

4. Zaintzen ekonomia eraldatzeko tokiko prozesuak abian jartzea, ikuspegi feministatik."

Alkateak dio aurka bozkatuko dutela, arrazoi honengatik: berdintasun-aholkularitzaren zerbitzuaren partida laukoizteko esaten duela EH Bilduk, zer egiteko den galdetzen du. Ez dutela zehazten zertarako. Beraiek ez daudela itxita partida berrikusi eta igotzeko, baina jakin beharko dutela zertarako. Proiektu konkrituak izan beharko dituztela mahai gainean eta orduan prest daudela partida igotzeko, baina ez itsu-itsuan, zertarako den jakin gabe.

Ormazabal zinegotziak dio adierazten dutela zertarako: teknikari zerbitzua kontratatzeko eta teknikari zerbitzuak ze eginkizun bete behar dituen ere zehaztu dutela lau puntutan. Urteak daramatzatela konpromezuak hartuz baina ondoren bete gabe.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren Osoko Bilkurak, aldeko 6 botorekin (EH Bildu) eta aurkako 7 botorekin (EAJ-PNV), mozioa baztertu du.

VIII. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta hamar direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

